

2020ko lehen hiruhilekoan esportazioen prezioak % 1,5 gutxitu ziren aurreko hiruhilekoaren aldean

Inportazioen prezioak, halaber, % 1,4 jaitsi ziren

2020ko lehen hiruhilekoan esportazioen prezioek % 1,5eko jaitsiera izan dute 2019ko azken hiruhilekoarekin alderatuta, Eustatek egindako datuen arabera. Baldin konparaketa egiten badugu iazko hiruhileko berarekin, % 0,2ko gehikuntza izan da.

Inportazioen prezioek joera bera dute, hau da, % 1,4 jaitsi dira aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, baina % 3,3 igo dira 2019ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta.

Esportazioen barruan, energia-produktuen prezioek markatu zuten bilakaeraren jarraibidea, bai aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, bai urte arteko terminoetan. Hala, esportazio energetikoen prezioak % 7,6 jaitsi ziren 2019ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta, eta esportazio ez-energetikoen prezioak, berriz, % 1,0. Aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta, ondasun energetikoen prezioak % 7,6 jaitsi dira berriz ere, eta ez-energetikoenak % 0,8 igo dira.

Inportazioen kasuan, produktu energetikoen prezioen indizea % 0,9 hazi zen, hiruhileko arteko tasan, eta ez-energetikoenak % 2,1 jaitsi zen. Urte arteko konparazioan, prezioen igoerak % 8,8koak izan ziren produktu energetikoen kasuan eta % 1,8koak ez-energetikoenan.

Euskal AEko kanpo merkataritzaren Unitate Balioaren Indizeak, erabilera taldearen eta xede ekonomikoaren arabera(%). 2020/I

	ESPORTAZIOAK		INPORTAZIOAK	
	t/t-1	t/t-4	t/t-1	t/t-4
Indize orokorra	-1,5	0,2	-1,4	3,3
Produktu energetikoak	-7,6	-7,6	0,9	8,8
Produktu ez-energetikoak	-1,0	0,8	-2,1	1,8
Kontsumo-ondasunak	0,4	5,5	1,2	5,2
Kapital-ondasunak	-6,1	-3,5	-6,0	-1,7
Bitarteko-ondasunak	-0,3	0,0	-1,2	3,6

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak

Helburu ekonomikoaren arabera sailkapenari jarraituz, nabarmentzekoa da Kontsumo-ondasunen esportazioen prezioen igoera (% 0,4) eta Bitarteko Ondasunen esportazioenen (-% 0,3) eta, batez ere, Kapital-ondasunen esportazioenen (-% 6,1) jaitsierak, hori guztia aurreko hiruhilekoarekin alderatuta. Urte arteko datuei dagokienez, Kontsumo-ondasunen prezioek ere gora egin dute (% 5,5); Bitarteko Ondasunenak, berriz, konstante mantendu dira (% 0,0) eta Kapital-ondasunenak jaitsi egin dira (-% 3,5).

Azterketa inportazioetara bideratuz gero, ikus daiteke ezen Kontsumo-ondasunen prezioak igo egin direla, bai hiruhileko batetik bestera (% 1,2), bai urte batetik bestera (% 5,2); aldiz, Kapital-ondasunetan kontrakoa gertatzen da, % 6,0ko eta % 1,7ko jaitsierekin, hurrenez hurren. Bitarteko Ondasunen kasuan, aldaketak zeinu desberdinekoak dira, negatiboak hiruhilekoen arteko konparazioan (-% 1,2), baina positiboak aurreko urtearekin alderatuta (% 3,6).

Esportazioek xede dituzten **eremu geografikoak** kontuan hartuta, 2019ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta, prezioak jaitsi egin ziren eremu guztietan: Euro eremua (-% 1,4), EB-28 (-% 0,9), ELGA (-% 0,9) eta Munduko gainerakoa (-% 4,0). Aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta, prezioek gora egin dute ia eremu ekonomiko guztietan, Munduko gainerakoan izan ezik, non % 2,4 jaitsi baitira.


Inportazioei dagokienez, nabarmentzekoa da Munduko gainerakoaren portaera, beherakada handiak izan baititu, bai aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (-% 8,1), bai urtetik urtera (-% 5,6). ELGAK, aldiz, % 1,8ko igoera izan du hiruhileko batetik bestera, eta % 7,6ko igoera prezioetan, 2019ko lehen hiruhilekoarekin alderatuz gero.

Euskal AEko kanpo merkataritzaren Unitate Balioaren Indizeak, ekonomia-arloen arabera (%). 2020/I

	ESPORTAZIOAK		INPORTAZIOAK	
	t/t-1	t/t-4	t/t-1	t/t-4
Indize orokorra	-1,5	0,2	-1,4	3,3
Euro eremua	-1,4	0,5	-1,6	1,7
EB-28	-0,9	0,8	-1,4	2,2
ELGE	-0,9	0,7	1,8	7,6
Munduko gainerakoa	-4,0	-2,4	-8,1	-5,6

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62